AGINDUA, ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO SAILBURUARENA, AISIALDIRAKO ONTZIEN TITULARREK AMARRALEKUAK ERABILTZEKO EMAKIDAK ETA BAIMENAK EMATEKO PROZEDURA ETA HORIEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTU BAT PRESTATZEKO HERRITARREI AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA A LA CIUDADANIA LA ELABORACIÓN DE UN PROYECTO DE ORDEN POR EL QUE SE REGULE EL PROCEDIMIENTO DE OTORGAMIENTO Y EL RÉGIMEN DE LAS CONCESIONES Y AUTORIZACIONES DE USO DE PLAZAS DE AMARRE POR LOS TITULARES DE EMBARCACIONES DE RECREO.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egokitzat jotzen du aisialdirako ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak eta baimenak emateko prozedura eta horien araubidea arautzen dituen agindu-proiektu bat egitea. Horren ondorioz, indargabetuta geratuko litzateke gai hori arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren2017ko urriaren 19ko Agindua.

El Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca considera oportuna la elaboración de un proyecto de orden que regule el procedimiento de otorgamiento y el régimen de las concesiones y autorizaciones de uso de plazas de amarre por los titulares de embarcaciones de recreo, que supondría la derogación de la vigente Orden de 19 de octubre de 2017, de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, que regula esta materia.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 133.1 artikuluan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak) 11. artikuluan xedatzen dutenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik, kontsulta publikoan bilduko da

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y el artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, disponen que con carácter previo a la redacción de una

herritarren iritzia, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Atari hori Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula da.

disposición de carácter general, se recabará en consulta pública, la opinión de la ciudadanía, a través del portal web de la Administración competente, que en la Comunidad Autónoma de Euskadi es el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Agindu honen bidez, bete egin da aurretiazko kontsulta publikoaren izapide hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoa, egin beharreko arauaren eraginpeko herritarrek iritzia emateko aukera izan dezaten.

Mediante la presente orden se ha cumplido el citado trámite de consulta pública previa, ordenado en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, a los efectos de que la ciudadanía afectada por la futura norma, tengan la posibilidad de emitir su opinión.

Horregatik guztiagatik, berariaz gonbidatzen ditugu herritarrak, erakunde publikoak, antolakundeak, entitateak edo elkarteak, proiektatutako arauaren eraginpean egon daitezkeenak, agindu honetan jasotako informazioari buruz iritzia ematera, egin beharreko xedapen orokorrari buruz.

Por todo ello, se invita expresamente a la ciudadanía, instituciones públicas, organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por la norma proyectada, a pronunciarse acerca de la información que se contiene en la presente orden, sobre la disposición futura de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.

Egin beharreko arauari buruzko informazioa eranskinean jasota dago, eta honako alderdi hauei buruzkoa da:

La información sobre la futura norma se contiene en el Anexo y versa sobre los siguientes aspectos:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

c) Arauaren helburuak.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.

c) Los objetivos de la norma.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Gainera, hilabeteko epea ezartzen da, agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan sartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, herritarrek, egin beharreko arauaren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, antolakunde, entitate edo elkarteek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Además, se establece un plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente orden, para que la ciudadanía, aquellas instituciones públicas, organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por la futura norma, presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta-izapide hau arau-proiektua osatu aurretik egiten da, xedapen orokor bat "*Prestatzeko*" fasearen barruan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean (11. artikulua) aurreikusia.

El presente trámite de consulta se efectúa, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo, dentro de la fase de "*Preparación*" de una disposición de carácter general, prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (*artículo 11*).

Horregatik, eta bat etorriz Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuak emandako eskumenekin bat etorrita, hau

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Herritarrei kontsulta publikoa egitea, araua osatu aurretik, aisialdirako ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura eta horien araubidea arautuko dituen agindu-proiektu bat, gai hori arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko indarreko Agindua indargabetzea ekarriko lukeena.

Bigarrena. - Erakunde publikoek, antolakundeek, entitate edo elkarteek eta pertsona fisikoek, hala nahi badute, aginduaren eranskinean jaso diren alderdiei buruzko ekarpenak eta oharrak helaraz ditzakete hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

RESUELVO

Primero. - Someter a trámite de consulta pública a la ciudadanía, con carácter previo a su elaboración, un proyecto de orden que regule el procedimiento de otorgamiento y el régimen de las concesiones de uso de plazas de amarre por los titulares de embarcaciones de recreo, que supondría la derogación de la vigente Orden de 19 de octubre de 2017, de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, que regula esta materia.

Segundo. - Las instituciones públicas, organizaciones, entidades o asociaciones y personas físicas que lo deseen pueden hacer llegar sus aportaciones y observaciones sobre los aspectos que se recogen en el anexo a esta orden en el plazo de un mes, contado desde el día de su publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Vitoria-Gasteizen / En Vitoria Gasteiz

AMAIA BARREDO MARTIN

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural Agricultura y Pesca

ERANSKINA

1. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa duela portuen arloan, betiere interes orokorrekotzat sailkatuta ez badaude. Eskumen hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 28ko 2/2018 Legea onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta itsas garraioaren kudeaketa arautzeko, eta, besteak beste, honako hauek ezarri zituen: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuei eta portu- eta itsas-instalazioei aplikatu beharreko esparru juridikoa, portuen plangintza-, antolamendu-, ustiapen-, eraikuntza-, handitze-, eraberritze- eta mantentze-araubideak, portuetako zerbitzuak emateko araubidea, eta portuetako sarbidea eta erabilera.

Ildo horretan, 32.1 b) artikuluak xedatzen du "amarralekuen kudeaketa" portu-zerbitzu bat dela, eta Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren arabera, portuko

ANEXO

1. Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

El artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de puertos, siempre que no estén clasificados como de interés general. En ejercicio de esta competencia el Parlamento Vasco aprobó la Ley 2/2018, de 28 de junio, con el objeto de regular la gestión de los puertos y el transporte marítimo en el País Vasco, estableciendo, entre otras cuestiones, el marco jurídico aplicable a los puertos e instalaciones portuarias y marítimas de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los regímenes de planificación, ordenación, explotación, construcción, ampliación, reforma y mantenimiento de los puertos, así como de prestación de los servicios portuarios, y el acceso y uso de los mismos.

En este sentido, el artículo 32.1 b) dispone que “la gestión de amarres” es un servicio portuario que de conformidad con Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco debe ser prestado por

administrazioak eman behar duela. Eta zerbitzu hori bere araudi espezifikoan zehaztutako araubide juridikoaren arabera eman beharko da.

la administración portuaria. Y dicho servicio deberá ser prestado conforme al régimen jurídico determinado en su normativa específica.

Gaur egun, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Aginduak arautzen ditu aisialdirako ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura eta horien araubidea.

En la actualidad es la orden de 19 de octubre de 2017, de la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, la que regula el procedimiento de otorgamiento y el régimen de las concesiones de uso de plazas de amarre por titulares de embarcaciones de recreo.

Urriaren 19ko Agindua onartu zenetik zortzi urte igaro dira, eta azken boladan aisialdiko nautikak bilakaera azkarra izan duenez, egiaztatu da beharrezkoa dela arau hori eguneratzea, ekainaren 28ko 2/2018 Legera egokitzeko eta aisialdiko sektore nautikoan dagoen eskari handiaren ondoriozko errealitate berriari erantzuteko. Horren guztiaren helburua da berme juridiko handienak izatea, bai amarralekuak eskatzeko eta emateko prozedurari dagokionez, bai behin emanda dauden emakiden eta baimenen araubide juridikoari berari dagokionez, betiere objektibotasun- eta ekitate-printzipioak errespetatuz.

Transcurridos ocho años desde la aprobación de la orden de 19 de octubre y dada la rápida evolución de la náutica de recreo en los últimos tiempos, se ha constatado la necesidad de actualizar esta norma para adaptarla a la Ley 2/2018, de 28 de junio, y dar respuesta a la nueva realidad derivada de la gran demanda existente en el sector náutico recreativo, todo ello con la finalidad de contar con las mayores garantías jurídicas tanto en lo que se refiere al procedimiento de solicitud y otorgamiento de las plazas de amarre, como al propio régimen jurídico de las concesiones y autorizaciones una vez otorgadas, respetando en todo momento los principios de objetividad y equidad.

Egokitze-prozesu hori beharrezkoa da, eta, gainera, Euskadiko portuetan laketontziak erabiltzen dituzten pertsonen elkarteek eta beste eragile garrantzitsu batzuek ere parte hartuko dute.

Un proceso necesario de adaptación que contará, además con la participación de las asociaciones de personas usuarias de embarcaciones de recreo en los puertos de Euskadi, así como de otros agentes relevantes.

2. Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Prestatzen hasiko den aginduak erantzuna eman nahi dio aurreko atalean azaldutakoari, eta 14/2025 mozioa bete nahi du, Eusko Legebiltzarraren 2025eko apirilaren 3ko osoko bilkuran onartutakoa, amarralekuen emakiden prozedurari eta araubideari buruzkoa.

Mozio horrek Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko Agindua ahalik eta epe laburrenean berrikusteko eta eguneratzeko.

Mozioaren arabera, berrikuspena partaidetza-prozesu baten bidez egin beharko da, laketontzien erabiltzaileen elkarteek Euskadiko portuetan parte-hartze aktiboa izango dutela bermatzeko, bai eta beste eragile garrantzitsu batzuekin ere, prozedura hobetzeko eta segurtasun juridikoa bermatzeko, betiere objektibotasun- eta ekitate-printzipioak errespetatuz amarratze-esleipenean.

Ondorioz, agindua onartzea beharrezkoa eta egokia da azaldutako helburuetarako.

3. Arauaren helburuak

Arauak honako helburu hauek lortzea erraztuko duen esparru juridiko-arauemailea ezarriko du:

2. Necesidad y oportunidad de su aprobación

La orden cuya elaboración se va a iniciar pretende dar respuesta a lo expuesto en el apartado anterior y dar cumplimiento a la moción 14/2025, aprobada en el pleno del Parlamento Vasco de 3 de abril de 2025, relativa al procedimiento de otorgamiento y al régimen de las concesiones de plazas de amarre.

Dicha moción instaba al Gobierno Vasco a revisar y actualizar en un plazo lo más breve posible la orden de 19 de octubre de 2017 de la consejera de desarrollo Económico e Infraestructuras.

La moción señalaba que la revisión deberá realizarse mediante un proceso de participación que garantice la participación activa de las asociaciones de usuarios y usuarias de embarcaciones de recreo en los puertos de Euskadi, así como con otros agentes relevantes con el objetivo de mejorar el procedimiento y garantizar la seguridad jurídica, respetando en todo momento los principios de objetividad y equidad en la adjudicación de amarre.

En consecuencia, la aprobación de la orden es necesaria y oportuna a los fines expuestos.

3. Objetivos de la norma.

La norma establecerá el marco jurídico-normativo que facilite la consecución de los siguientes objetivos:

a) Arauaren aplikazio-eremua zabaltzea.

b) Amarralekuak erabiltzeko baimenen araubide juridikoa eta horiek emateko prozedura arautzea, segurtasun juridikoa eta objektibotasun- eta ekitate-printzipioak betetzen direla bermatuz, plaza esleitzeko irizpideak ezartzean eta emateko ebazpenean.

c) Amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko deialdi- eta eskaera-prozedura hobetzea.

d) Amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura hobetzea, segurtasun juridikoa eta objektibotasun- eta ekitate-printzipioak betetzen direla bermatuz plaza esleitzeko irizpideak ezartzean eta emateko ebazpenean.

e) Aisialdiko sektore nautikoaren errealitatera egokitzea aisialdiko ontzien titularrek amarralekua erabiltzeko emakiden araubidea.

f) Administrazioak amarralekuak kudeatzeko zerbitzua ematean eraginkortasuna eta gardentasuna mantentzeko neurriak sartzea.

a) Ampliar el ámbito de aplicación de la norma.

b) Regular el régimen jurídico de las autorizaciones de uso de plazas de amarre y el procedimiento para su otorgamiento, garantizando la seguridad jurídica y el cumplimiento de los principios de objetividad y equidad, en el establecimiento de los criterios de asignación de plaza y en la resolución de otorgamiento.

c) Mejorar el procedimiento de convocatoria y solicitud para el otorgamiento de concesiones de uso de plazas de amarre.

d) Mejorar el procedimiento de otorgamiento de las concesiones de uso de plazas de amarre, garantizando la seguridad jurídica y el cumplimiento de los principios de objetividad y equidad en el establecimiento de los criterios de asignación de plaza y en la resolución de otorgamiento.

e) Adaptar a la realidad del sector náutico recreativo el régimen de las concesiones de uso de plaza de amarre por titulares de embarcaciones de recreo.

f) Introducir medidas dirigidas a mantener la eficacia y la transparencia en la prestación por parte de la administración del servicio de gestión de amarres.

4. Ordezko irtenbide arautzaile eta ez-arautzaile posibleak.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla eta, arau-izaerako neurri espezifiko bat egitea beharrezkotzat jotzen da, eta ezin da bestelako aukera arautzailerik edo ez-arautzailerik hauteman.

4. Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados anteriores, la elaboración de una medida específica de carácter normativo se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.